

EDELMAN, JOSHUA
ESKUBIDE TXIKIKO ELKARGOAREN KIDEA

New Yorken jaioa, pianista, konpositore, ekoizle eta pedagogo da. Jazzaren irakaskuntza, ikerketa eta hedapenerako gunea den Jazz Cultural Theatre of Bilbaoren sortzailea, 80ko hamarkadako New Yorkeko Jazz Cultural Theatre mitikoaren oinordekotzat hartzen da. New York Unibertsitatean eta Manhattan School Musicen ikasi zuen. Hainbat taldetako musika-zuzendaria dugu, eta nazioarteko kontzertu eta bira ugari egin ditu. Jazz Basque Country Productions diskoetxe propioa dauka eta hamar disko ditu merkatuan. Musika klasikoak, bebopak eta afrikar arrastoak amerikar herri-musikan dituzten eraginak konbinatuz, hamaika eskola, ikastaro, mintegi eta hitzaldi eman ditu, ikerketa bokazioarekin eta bere berezitasunarekin, Espainian jazz jatorriarekiko begirune ohoragarri batetik garatzen lagunduz.

